

2016ko otsailan egindako bileran, Europako-Kontseiluak erabaki oso garrantzitsuak hartu zituen asilo eta migrazioei buruzko politikan. Hor hasi zen norabide murriztailea, harrezkero pairatzen ari garena. Lau puntu azpimarratuko nituzke: asilo eskale eta migrarien etorrerak eten; Europa Batuko kanpoko mugak babestu beste edozerren gainetik; legez kanpoko migrazioa murriztu eta Schengen espazioaren segurtasuna bermatu.

Europako-Kontseiluko buruzagientzat, Europa Batuko 28 estatuetako lehen ministroentzat, pertsonak eta beraien eskubideek bigarren mailan geratu behar zuten. Beraientzat asilo politikaren helburuek ez zuten pertsonekin zer ikusi handirik. Lehentasunak beste leku batean zeuden: muga zaintzan, mugak babestean eta pertsonen eustean.

## **Zein izan dira politika horren ondorioak? Bost joko nituzke aipagarrien:**

Bat, etorrerak, batez ere Ekialdeko Mediterraneotik abiatzen zirenak, 2016ko martxoaren 19an Turkiarekin sinatutako akordioaren ostean, erabat gutxitu direla. 2015an, 853.650 pertsona iritsi ziren Greziara Turkiatik abiatuta; 2016an 173.614ra jaitsi ziren; eta aurten 30.000 inguru izango dira bakarrik.

**Libia putzu beltz bat bihurtu da asilo eskale eta migrarientzat, bereziki afrikarrentzat. Inork ez du datu zehatzik ematen..**

Bi, Erdiko Mediterraneoko bidea, askoz zailago egitea. Kasu honetan, arazoa Italiaren aurrean Libia dagoela da, eta hango sasi-administrazioekin eta miliziekin askoz zailagoa dela tratatuak egitea. Libia, gaur egun, huts egindako estatu bat da, eta han dauden milaka migrari eta asilo eskaleak negozio bihurtu dira trafikatzailerentzat. Migrazioentzako Organizazio Internazionalak

kalkulatu du 416.000 migrari daudela bertan blokeatuta,

gehi 44.000tik gora asilo eskale, Nazio Batuen Erakundearen kontrolpean, %85 siriarrak. Hala eta guztiz ere, irtetzeko zailtasunak handituz, jendende gutxiago etortzea lortu dute. Iaz, 179.137 pertsona iritsi ziren Italiara, gehienak Libiatik abiatuta. Aurten 120.000 inguru izango dira, %33 gutxiago.

Hiru, sarrera gutxiagorekin, asilo eskaera gutxiago Europako estatuetan. 2015ean 1.257.030 asilo eskaera berri egin ziren; 1.205.170 2016an eta, aurten, 700.000 eskaera inguru izango dira (iaz baino 500.000 gutxiago).

Lau, nahiz eta jende gutxiago abiatu, hildakoen kopuruak jasan ezina izaten jarraitzen du. Iaz, 358.527 pertsona iritsi ziren Europara Mediterraneoan zeharkatuz, Migrazioendako Organizazio Internazionalaren datuen arabera. Hildakoak (desagertutakoak inork ez ditu kontabilizatzen) 4.962 izan ziren. Aurten, abenduaren 17a arte, 168.314 dira iritsitakoak (118.064 Italiara, 28.490 Greziara, 1.067 Ziprera eta 20.693 Espainiara) eta 3.115 hildakoak.

Bost, Libia putzu beltz bat bihurtu da asilo eskale eta migrarientzat, bereziki afrikarrentzat. Inork ez du datu zehatzik ematen. Moussa Faki Mahamatek, Afrika Batuko Komisioko presidentek, 400.000 eta 700.000 bitartean daudela kalkulatu du. Bestalde, Libiako administrazioak 42 atxilotze zentro daudela esaten du, nahiz eta kazetari eta gobernuz kanpoko elkarteek askoz gehiago daudela esaten duten, eta milaka pertsona daudela atxilotuta inongo kontrolik gabe, milizien eskuetan eta nahi dutena egiten dutela bertan daudenekin: familiei erreskateak eskatu edo esklabu bezala saldu.

Azaroaren 14an, CNN telebista kate amerikarrak, Tripoli ondoan egindako esklabu salmenta baten irudiak eman zituen. Saldutako guztiak, dozena bat inguru, gazte migrari beltzak ziren. Prezioa, 500 eta 700 libiar dinar, 435 euro gutxi gora behera. Esklabu salmentak, hilean behin egiten omen dira, denen aurrean, inongo oztoporik gabe. Eta Libia ez da esklabutza dagoen leku bakarra. Hor dago Mauritania. Ines

Oueslati kazetari tuniziarrek orain dela gutxi salatzen zuen bezala, esklabutza ez da

sekula desagertu. Formak dira aldatu direnak, baina ez funtsa.

Europako agintariek ez dute esklabutza bultzatzen; baina aspaldi hontan, eta bereziki azken bi urte hauetan, Europa Batuak afrikarren migrazioekiko bultzatutako politikak, halako gauzak gerta daitezzen errazten du.

Abenduaren 12an, Amnesty International elkarteak, europar gobernuak Libian gertatzen ari denaren konplizeak direla esaten zuen. Gaur egun, Europa Batuak laguntzen duen Libiako Gobernuaren administraziopean dauden atxilotze eremuetan, 15.000-20.000 migrari daude atxilotuta, gehienak afrikarrak, kondizio izugarri txarretan.

Libian dauden afrikarrak beraien jaioterrira bueltatzea izan da Abidjanen egindako Europa-Afrika gailurraren erabaki garrantzitsuenetariko bat. Baina hori, beste batzuetan bezala, Europaren mesedetan hartutako erabakia da, diruaren truke. Hainbeste gailurretan hartutako erabakiak kontuan hartzen baditugu, politika horrek ez duela iraungo iruditzen zait, eta Europak, afrikarren migrazio nahiari beste modu batean egin beharko diola aurre.